



**2017KO EKAINAREN 27KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko maiatzaren 30ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ESLEIPENA.-**

Udal Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 28an egindako bilkuran hartutako akordio bidez, udal kiroldegiko zerbitzuak prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia 2017ko apirilaren 24ko 77 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamen hauek aurkeztu dira:

- 1.- Juan Ignacio Moyua Ayala (GKT)
- 2.- Ion Peñagarikano Agirresarobe (ABILION)

Proposamen guztiak izan dira onartuak.

Balio-judizio baten menpeko erizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen duten B kartazalak 2017ko maiatzaren 19an jendaurrean ireki ziren.



B kartazalak jasotzen duten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaie enpresei:

ENPRESA	PUNTUAK
Juan Ignacio Moyua Ayala (GKT)	21
Ion Peñagarikano Agirresarobe (ABILION)	16

2017ko ekainaren 13an, proposamen ekonomikoa duten C kartazalak jendaurrean irekitzea egin zen. C Kartazalak ireki aurretik B kartazalen balorazioaren berri eman zen.

Enpresek aurkeztutako ekonomi proposamenak honako hauek izan dira:

ENPRESA	ZENBATEKOA		
	Kirol monitoretza ordua	Sorosletza ordua	Harrera, informazio eta kontrol ordua
Juan Ignacio Moyua Ayala	28,25 € + BEZ	24,50 € + BEZ	25,30 € + BEZ
Ion Peñagarikano Agirresarobe	30,60 € + BEZ	26,40 € + BEZ	27,30 € + BEZ

Hau honela izanda eta baldintza pleguan ezarritakoa jarraiki, ekonomi proposamenengatik puntuaketa honako hau da:

ENPRESA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA						Puntuaketa ekonomikoa
	Monit. baja %	Monit. punt.	Sorosl. baja %	Sorosl. punt.	Harr. baja %	Harr. punt.	
Juan Ignacio Moyua Ayala	100	26	100	22	100	27	<b>75,00</b>
Ion Peñagarikano Agirresarobe	0,40	3,78	0,45	4,21	0,45	4,96	<b>12,95</b>

Eta ondorioz guztizko puntuaketa honela gelditu da:

ENPRESA	KUDEAKETA PROIEKTUA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA	GUZTIRA
Juan Ignacio Moyua Ayala	21	75,00	96,00
Ion Peñagarikano Agirresarobe	16	12,95	28,95

Juan Ignacio Moyua Ayala-k, lehen sailkatu gisa, behin betiko fidantza jarri du eta baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa ere jarrita du.

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, Juan Ignacio Moyua Ayala (GKT) enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.



Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

1. Lazkaoko udal kiroldegiko zerbitzuen kontratazioaren esleipena Juan Ignacio Moyua Ayala enpresaren alde egitea.

Esleipen honen jakinarazpena prozedura irekian parte hartu duten enpresa guztiei jakinaraztea, eta aldi berean udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

#### IV.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 28an egindako bilkuran hartutako akordio bidez, etxeke laguntza zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia 2017ko apirilaren 6ko 68 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamen hauek aurkeztu dira:

- 1.- CLECE S.A.
- 2.- EULEN SERVICIOS SANITARIOS S.A.
- 3.- GOXARA S.L.

Proposamen guztiak izan dira onartuak.

Balio-judizio baten menpeko erizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen duten B kartazalak 2017ko maiatzaren 2an jendaurrean ireki ziren.

B kartazalak jasotzen duten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaie enpresei:

ENPRESA	Punt. teknikoa
CLECE S.A.	30
EULEN SERVICIOS SANITARIOS S.A.	38,5
GOXARA S.L.	37

2017ko ekainaren 13an, proposamen ekonomikoa duten C kartazalak jendaurrean irekitzea egin zen. C Kartazalak ireki aurretik B kartazalen balorazioaren berri eman zen.

Enpresek aurkeztutako ekonomi proposamenak honako hauek izan dira:

ENPRESA	ZENBATEKOA	
	Orduaren prezioa lanegunetan	Orduaren prezioa jai egunetan
CLECE S.A.	16,84	16,84



EULEN SERVICIOS SANITARIOS S.A.	17,86	17,86
GOXARA S.L.	18,12	20,91

Hau honela izanda eta baldintza pleguan ezarritakoa jarraiki, ekonomia proposa-menengatiko puntuaketa honako hau da:

ENPRESA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA				
	Baja %a asteguneko orduan	Puntuak	Baja %a jai eguneko orduan	Puntuak	Puntuaketa ekonomikoa
CLECE S.A.	7,17	46,45	22,72	1,21	<b>47,66</b>
EULEN SERVICIOS SANITARIOS S.A.	1,54	43,24	18,04	1,13	<b>44,37</b>
GOXARA S.L.	0,11	42,42	4,04	0,90	<b>43,32</b>

Eta ondorioz guztizko puntuaketa honela gelditu da:

ENPRESA	PROPOSAMEN TEKNIKOA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA	GUZTIRA
	Puntuaketa teknikoa	Puntuaketa ekonomikoa	
CLECE S.A.	30,00	47,66	77,66
EULEN SERVICIOS SANITARIOS S.A.	38,50	44,37	82,87
GOXARA S.A.	37,00	43,32	80,32

EULEN Servicios Sanitarios S.A.k, lehen sailkatu gisa, behin betiko fidantza jarri du eta baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa ere jarrita du.

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, EULEN Servicios Sanitarios enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

1. Lazkaoko etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazioaren esleipena EULEN Servicios Sanitarios S.A. enpresaren alde egitea.

Esleipen honen jakinarazpena prozedura irekian parte hartu duten enpresa guztiei jakinaraztea, eta aldi berean udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

**V.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEKO HITZAR-MENA, SAN PRUDENTZIO KALEKO 15-23 ZENBAKIEN ARTEAN URBANIZAZIOA GAUZATU ETA FINANTZATZEARI BURUZKOA.-**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatu Kontseiluak, 2017ko ekainaren 20an egin-dako batzarraldian, San Prudentzioko 15-23 zenbakien arteko urbanizazio lanen finantza-



ketan parte hartzea onartu du, horretarako gehienez EHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI euro eta LAU zentimo (158.992,04 €) jarriko dituelarik.

Hau honela, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena izenpetzea planteatzen da. Hitzarmen honen zirriborroa osoko bilkura honetarako deialdiarekin batera bidalitako dokumentazioaren barne bidali da.

Gaia aztertu ondoren eta Ogasuneko Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, gaia bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

1.- San Prudentzioko 15-23 zenbakien arteko urbanizazio lanak burutzeko eta finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetzea planteatzen den hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea.

2.- Lazkaoko Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan alkatea ahalmentzea.

#### VI.- ARTXIBOKO ESPURGOA.-

Lazkaoko Udal honen artxiboaren antolaketa lanen barruan, hainbat dokumentu xahutzeko txostena egin dute zerbitzu teknikoek.

Txosten honetan 35 dokumentu serie xahutzea aurreikusten da.

Udal artxiboetako dokumentuen xahuketa egiteko xedatuta dagoen legezko prozedura jarraituz, xahuketa egiteko eskaera Eusko Jaurlaritzara bidali da.

Eusko Jaurlaritzak serie horiek xahutzeko proposamena onartzea erabaki du. Eusko Jaurlaritzak bidalitako komunikazioan esaten da baita ere, behi dokumentu serieak suntsitu eta gero, suntsitze aktaren kopia bat bidali beharko dela Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari atxikitako Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordera.

Guzti honen aurrean, eta gaia Gobernantza Batzorde Informatzailean informatua izan ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, udal artxibokoko dokumentu xahuketa hau onartzea erabakitzen du.

#### VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du datorren hileko azken asteartea jai eguna denez, osoko bilkura egitekotan aurreko asteartean egingo litzakela, hau da, 18an.

#### VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

